

WOMAN



*con***versaciones**

“ Eztabaidatu, hausnartu eta ekiteko gida didaktikoak ”



Hezkuntza askatasun praktika gisa eskaintzea edonork ikas dezakeen heziketa modu bat da. Ikaskuntza-prozesu hori errazagoa da gure bokazioaren alderdi bat sakratua dela uste dugun irakasleontzat; gure lana informazioa partekatzea ez ezik, gure ikasleen garapen intelektua-lean eta espiritualean parte hartzea ere badela uste dugu. Funtsezkoa da gure ikasleen arimak errespetatzen eta zaintzen dituen modu batean irakastea, beharrezko bal- dintzak sortu nahi baditugu ikaskuntzaren dimentsio sakon eta intimoenak martxan jarri ahal izateko.

Teaching to transgress bell hooks, 35. or.



aur kibi dea

AURKEZPENA_ 3

NOLA ERABILI GIDA HAU_ 3

GURE ASMOA_ 3

GURE LANTALDEA_ 4

HELBURU OROKORRAK_ 5

DOKUMENTALA IKUSI
AURRETIK_ 6

DOKUMENTALA IKUSI
ETA GERO_ 12

AGURRA ETA ITXIERA_ 28



MEDICUSMUNDIREn gida bat,

NORAY KOLEKTIBOAK

egina ATELIER DE IDEAS S. COOP.,

PATRICIA RAIJENSTEIN eta CAYLLU KOLEKTIBOko
KIMY/LETICIA ROJAS MIRANDAren laguntzarekin.

ANA MAKETAren diseinua eta maketazioa.

Laguntzaileak:



Agència Catalana
de Cooperació
al Desenvolupament

Argitalpen honek Espainiako Lankidetzaren laguntza jaso du, Espainiako lankidetzaren Agentziaren (AECID), Garapenerako Lankidetzarako Kataluniako Agentziaren (ACCD) eta Bartzelonako Udalaren bidez.

Edukiaren erantzukizuna medicusmundirena da bakarrik, eta ez du, nahitaez, AECIDen, ACCDren eta Bartzelonako Udalaren jarrera islatzen.

Aurkezpena

Gida honen helburua da tresna izatea bai irakasle eta ikasleentzat, bai edozein bitartekari eta taldek osatutako edonolako binomioarentzat ere. Gidaren muina osatzen duen dokumentalaren gai nagusiak lantzen laguntzea da asmoa; kasu honetan, **WOMAN** dokumentalarenak.

Zer galdera egin? Nola interpelatu, eta nola jaso eta bideratu ekarpen bakoitza? Zer proposamenek eraman gaitzakete ekintzara? Nola eragin pentsamendu kritikoa? Gida honek bidelagun izan nahi du gai horiek eta beste asko lantzeko.

Nola erabili gida hau

Gida erabiltzeko aholku batzuk:

- Proposamen bakoitzak bere helburu zehatzak ditu, irakasle edo bideratzaile bakoitzak taldeari egoki diezazkion.
- Ez da beharrezkoa jarduera guztiak egitea, ez eta proposatutako ordenean ere; taldeari gehien komeni zaizkionak edo gustukoenak aukeratzeko pentsatuta dago gida hau.
- Talde bakoitzari ondo egokitzeko, halaber, proposamen mota ugari ditu, hala nola elkarrizketan, gorputzaren erabileran... oinarrituak.

Gida hau erabiltzeko gako nagusia da erabiltzen duenak **gozatzeko eta ikasteko asmoa** izatea, parte **hartzeko eta entzuteko beharrezko denbora** emanez eta, batez ere, **erantzunak baino galdera gehiago sortzeko** asmoarekin.

DOKUMENTALA IKUKSI AURRETIK

Dokumentala ikusi aurretik lantzeko **galdera eta dinamika sorta**, taldearen abiapuntua mahai gainean jartzeko aukera ematen duena

DOKUMENTALA IKUSI ETA GERO

Eta niri zer? Dokumentala ikusi eta gero, parte-hartzaileak eta haien emozioak zuzenean interpelatu dituzte.

Dokumentalaren isla datuetan. Dokumentalaren gai nagusiei buruzko **informazio** kuantitatiboa bilatzea planteatzen du. Ikerketa, edozein iritziz sortzeko oinarri.

Bazen behin... Istorioa **nola** kontatu zaigun aztertzeko unea: gidoia, protagonistak, musika, fotografia, etab.

Eta orain zer? Ekintzara pasatzeko zer egin dezakegun imajinatzeko eta hausnarketa bultzatzeko proposamenak.

Gelditu egiten gara, aurrera jarraitzeko. Denbora hartzea **hausnartzeko**, bildutakoari arreta eskaintzeko eta horren inguruan pentsatzeko.

Tiraka jarraitzeko hari batzuk. Dokumentalaren gaiez harago doan material osagarria. Eta musika, bideo, liburu eta abarren zerrenda osatzen jarraitzeko gonbita, hemen: **documentales@medicusmundi.es**.

- Hemendik aurrera zuri hitz egingo dizugu zuzenean, irakasle, bideratzaile edo bitartekari zaren horri, **gida hau zuretzat baita**.

Sumatzen zen emozioak potentzial handia zuela atmosfera serioa asaldatzeko, eta hori funtsezkoa zela ikas-prozesurako.

Emozioa pizteko nahia partekatzeak asmoz goi-mailako eskoletako eta unibertsitateetako ikasgelan sartze hutsa transgresorea zen.

Teaching to transgress
bell hooks, 29. or.

GURE


asmoa

Pentsamendu kritikoa erraztu eta bultzatzen duen ildo pedagogikoan kokatzea gustatzen zaigu; gure burua eta ingurua zalantzan jartzea, galderaz josi eta erantzunak aurkitu ahal izateko bideak bilatzea. Ziurgabetasuna eta deserosotasuna gainditzea, ikasteko. Talde baten parte garela sentitzea maite dugu, haren ondoan sentitzea eta harekin batera hazi ahal izatea.



Gure lantaldea

Jende askoren artean erantzuten diegu helburu horiei. **Lantaldea osatzen dugu.**
Zuekin guztiokin, noski. Bestela, ezingo genuke ezer egin.



Helburu orokorrak

- Genero-indarkeriaren eta osasunaren arteko harremana aztertzea, eta generoaren eraketa sozialaren prozesuan sakontzea, ulertuta baldintzatu egiten dituela bai osasuna, bai gure lurraldeetan indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko baliabideak.
- Laguntza, orientazioa eta tresna pedagogikoak erraztea, **WOMAN** filmaren eta proposatzen dituen gaien inguruko eztabaida eta gogoeta pizteko.
- Hausnarketaren eta ekintzaren arteko harremana sustatzea eta sendotzea, indarkeriaren eta generoaren arteko lotura aztertzeko.

DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK

- Aurretik ditugun ideietatik abiatuta, dokumentalean agertzen den lurraldea testuinguruan kokatzea.
- Hainbat indarkeria mota bereiztea eta haien artean loturak egitea.
- Termino hauek bereiztea:
 - etxeko indarkeria
 - genero-indarkeria
 - indarkeria matxistaeta indarkeria horien eta generoaren inguruko hainbat ikuskerarekin erlazionatzea.
- Genero-indarkeriaren biktima edo erasotzaile izateko joera handiagoa duten zenbait profili buruzko estereotipoak zalantzan jartzea.
- Genero-indarkeria eta osasuna erlazionatzea, bai eta gure testuinguruko osasun-zerbitzuen trataera ere.

DOKUMENTALA IKUSI ETA GERO

Berriazko helburuak



ETA NIRI ZER?

- Dokumentala ikusteak emozionalki eragin digunari arreta eskaintzea; ikusi eta entzundakoak nola interpelatu gaituen ikustea.

BAZEN BEHIN..

- Dokumentalaren ikus-entzunezko hizkuntza zinematografikoa identifikatzea.
- Dokumentalaren atal batzuk esplizitu egitea.

GELDITU EGITEN GARA, AURRERA JARRAITZEKO

- Saioan landutakoaren inguruan kontzientzia hartzea, bai norbanako gisa, bai talde gisa.
- Lotura egitea, alde batetik, genero-indarkeriari eta osasunari buruzko ideia eta gogoeten eta, bestetik, egin daitezkeen ekintzen artean.
- **WOMAN**en saioa elkarrekin ixtea.

DOKUMENTALAREN ISLA DATUETAN

- Informazioa bilatu eta kontrastatzeak duen garrantzia aitortu eta sustatzea, ikasteko eta ezagutza eraikitzeko prozesuaren parte gisa.
- Informazio-iturrien objektibotasuna zalantzan jartzea.

ETA ORAIN ZER?

- **WOMAN**en ikusitako egoeren aurrean, baina arriskurik gabeko giro batean, izango genituzkeen jarrerak eta erreakzioak ezagutu eta esperimintatzea.
- Erreakzionatzeko moduak eta horien ondorioak identifikatzea.

TIRAKA JARRAITZEKO HARI BATZUK

- Osasunak generoarekin duen harremanaren inguruko ikuspegia zabaltzea, eta bizitzako beste alderdibatzuekin erlazionatzea.
- Zuekin komunikatzeko bidea aktibo mantentzea eta gida bizia izatea.

DOKUMENTALA *ikusi aurretik*



ZER DAKIZU? ZER USTE DUZU?

Gutako bakoitzak eraikitzen duen prozesu gisa ulertzen dugu ikaskuntza eta, horrekin batera, ezagutza eta pentsamendua. Beraz, **WOMAN** ikusi **AURRETIK** egiteko zenbait dinamika proposatzen dizkizuegu, helburu bikoitzarekin.

Alde batetik, WOMANek lantzen dituen gaiei buruz taldeak dagoeneko dauzkan eta eraiki dituen eskemak eta ideiak ezagutuko ditugu, horiek izango baitira zuen tresnak ideia horietan sakontzeko edota ideia berriak eraikitzeko. Horrelaxe jakingo dugu nondik abiatu eta nola aktibatu konexioak.

Beste alde batetik, giroa sortu, eta taldea prestatu behar da dokumentalari ekiteko. Hartara, gaia norantz eraman erabaki ahal izango duzue, edo interes orokorra nora bideratuta dagoen ikusi, ondorengo eztabaida hobeto gidatu ahal izateko. Horrela fokuratuko dugu gaia.

WOMAN Mozambikeren gertatzen da.

WOMANek indarkeriez dihardu.

WOMANek emakume afrikarrak aurkezten dizkigu.

WOMANek osasunaz hitz egiten du. Eta botereaz.

Bost dinamika proposatzen dizkizuegu Mozambikeren, indarkerien, emakumeen eta osasunaren inguruko alde aurretiko ideiak azaleratzeko. **Dinamikek ez dute irtenbide zuzen bakarra, guk gako batzuk besterik ez dizkizuegu emango.** Gaia sakon ezagutzen baduzue, nahi bezala alda dezakezue proposamena. Eta, ezagutzen ez baduzue, baina dinamika proposatu aurretik gehiago jakin nahi baduzue, horretarako erreferentzia batzuk eskaintzen dizkizuegu TIRAKA JARRAITZEKO HARI BATZUK atalean.

Dinamikak

1)

Mozambikek... zein du hiriburua? Kokatzeko

HELBURUA

Aurretik ditugun ideietatik abiatuta, dokumentalean agertzen den lurraldea testuinguruan kokatzea.

DINAMIKA

Lau lantaldetan banatuko dugu taldea. Afrikako mapa mutu batetik abiatuko gara eta Mozambike kokatzeko eskatuko diegu, eta herrialde horri buruz dituzten ideiak partekatuzko: **Zein da herrialdeko hizkuntza? Eta erlijioa? Zer dakite herrialdearen historiari buruz? Pertsonaia garrantzitsuren bat ezagutzen al dute?** Erantzunak bildu eta gero, lantaldeka ikerketa laburra egitea proposatuko diegu.

1) Lantalde batek Mozambike kolonizazioaren aurretik iker dezake; **2)** Beste talde batek, kolonizazio bitartean; **3)** Hirugarren batek, kolonizazioa amaitu zenetik gutxi gorabehera gerra amaitu arte, eta **4)** Azken lantaldeak gaur egungo Mozambike iker dezake.

**Dinamika hau etxean egiteko ere proposa dezakegu, alde aurretik jakinarazita. Hartara, bakoitzak etxetik landuta ekarriko du besteekin elkarbanatzeko informazioa.*

GAKOAK

Bereziki gai hauek lantzea nahiko genuke: Zer dakigu Mozambikeri buruz? Zer dakigu herrialdearen eraikuntza sozial, ekonomiko eta estrukturalari buruz? Zein harreman du herrialdeak kontinentearekin, Afrikarekin? Denbora eta espazio jakin batean kokatu nahi dugu, ez modu globalean, eta ideia lausoak ondo zehaztu nahi ditugu. Dakiguna edo dakigula uste duguna agerian utzi nahi dugu, Mozambikeri eta Afrikako herrialdeei buruz ditugun estereotipo eta aurreiritziak ikusarazi. Horrek lagunduko du dokumentala bere testuinguruan ikusten eta alde aurreko informazioarekin erlazionatzen.

5' aurkezpena egiteko.

15' informazioa bilatzeko.

15' partekatu eta eztabaidatzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Jarduera ikasgelan egingo bada, Afrikako mapa mutu politikoaren paperezko kopiak beharko ditugu lantalde guztientzat. Halaber, parte-hartzaileek mugikorrek ere beharko dituzte informazioa bilatzeko, eta gelak wifi konexioa izan beharko du.

Indarkeria. Zenbait kausaren bila, ez soilik errudunen bila

EGITURAZKO INDARKERIA / INDARKERIA KULTURALA / ZUZENeko INDARKERIA

HELBURUA

Hainbat indarkeria mota bereiztea eta haien artean loturak egitea.

DINAMIKA

Ikasleak lantaldeka banatuko ditugu. Lantalde bakoitza hiru indarkeria mota identifikatzen saiatuko da: **zuzeneko indarkeria**, **egiturazko indarkeria** eta **indarkeria kulturala**; bakoitzaren definizioa ematen saiatuko dira, eta bakoitzaren bi adibide aipatu beharko dituzte gutxienez. Talde handira itzulitakoan, lantalde bakoitzeko ordezkari batek besteekin partekatuko du egindakoa. Horrela, ikusiko dugu ea terminoren batean bat datozen, zein termino faltako litzatekeen, adibide gehiago emango genuke, etab. Azkenean, denon artean indarkeria mota bakoitzaren definizio bateratua lortuko genuke, eta mota bakoitza islatzen duen adibide ugari.

GAKOAK


Indarkeriaren triangelua J. Galtung-ek sortutako kontzeptua da, hiru indarkeria moten arteko harremana irudikatzeko.

- **ZUZENeko INDARKERIA** agerikoa da, jokabideen bidez ikusten da eta indarkeria-ekintzetan gauzatzen da.
- **EGITURAZKO INDARKERIA** beharrak asetzea ahalbidetzen ez duten egituretan oinarritzen da eta, hain zuzen ere, beharrak ukatzean datza. Indarkeria hori sisteman txertatuta dago; botere-harreman desberdinetan eta, beraz, bizi-aukera desberdinetan gauzatzen da.
- **INDARKERIA KULTURALAK** indarkeria legitimatzeko markoa sortzen du eta jarreretan zehazten da*.

ITURRIA: Calderón Concha, Percy (2009). *Teoría de conflictos de Johan Galtung*. Paz y Conflictos aldizkaria, (2), 60-81. or.

Hiru indarkeria motak **elkarren mendeko** dira: bat eragozteko, beste biei aurre egin behar zaie, eta ekintzen bidezko lanketa egin. Sarritan, zuzeneko indarkeriaren kausak egiturazko indarkeriarekin lotuta egoten dira, edota indarkeria kulturalak justifikatuta: egoera askotan, zapal dutako talde batek botere-abusuak jasan behar izaten ditu, edo bidegabekeria soziala pairatu behar izaten du, eta ez du inolako babesik jasotzen indarkeria horiek justifikatzen dituzten diskurtsoen aldetik.

IRUDIA
«Indarkeriaren triangelua»
ohan Galtung



- 5' dinamika aurkezteko.
- 15' informazioa bilatzeko.
- 15' partekatu eta eztabaidatzeko.

MATERIALA

- «Indarkeriaren triangelua» eskemaren irudia, paperean edo proiektatuta (bigarrena gomendatzen dugu).
- Papera eta boligrafoa, oharrak hartzeko.

* Kontuz, ez sinplifikatu kultura jarrekin, eta ez alderatu indarkeria hau edo kultura hori, edo indarkeria eta kultura, oro har. Adi, agian une egokia izan daiteke bi kulturaren arteko botere-gatazka azalertzeko: batetik, kolonialismoaren ondorio den «kultura modernoa» eta, bestetik, «antzinako kultura», «berdintasunaren» oztopotzat hartu izan dena. Ikus bibliografia.

Indarkeria. Terminoak garrantzitsuak dira

ETXEKO INDARKERIA / GENERO-INDARKERIA / INDARKERIA MATXISTA

HELBURUA

Terminoak bereiztea eta generoaren inguruko hainbat ikuskerarekin erlazionatzea.

DINAMIKA

Zer etortzen zaizu burura termino hau entzuten duzunean?

Taldeko kide bakoitzari hiru post-it emango dizkiogu, bakoitza kolore batekoa. Kolore bakoitza indarkeria mota batekin lotuko dugu: etxekoa, generoaren araberrakoa eta matxista.

Zer pentsatzen duzu etxeko indarkeria entzuten duzunean?

Eta genero-indarkeria?

Eta indarkeria matxista?

Idatzi bururatzen zaizun lehenengo gauza.

Bukatu eta gero, post-itak kolorearen arabera taldekatuta itsasiko ditugu ikasgelako hainbat puntutan. Irakurri ahoz gora, zuk zeuk edo taldeko norbaitek, eta eman denbora entzuteari eta eztabaidatzeari.

GAKOAK

Galderak azalera daitezela: Errealitate bera izendatzen al dute? Imajinario berbera ekartzen al digute burura? Sinonimoak al dira? Non jartzen du bakoitzak enfasia? Zer interes izan dezake bata edo bestea erabiltzeak?

— **ETXEKO INDARKERIA** familia bateko kideen arteko elkarbizitza-gunean ematen da. Hala, etxeko edo familiako indarkeriaz hitz egitean, indarkeria mota ugari nahasteaz gain, arazoa leku fisikoan kokatzen da, emakumeen aurkako indarkeria eragiten duen genero-eraikuntzan kokatu beharrean.

— **GENERO-INDARKERIA** gizonek emakumeen aurka egiten duten indarkeria da, eta hala dago jasota Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integralerako Neurrien Lege Organikoan. Terminoak azpimarratzen du indarkeriaren kausa genero-harremanetan dagoela eta sistema patriarkal batek sostengatzen duela; desparekotasunaren, mendekotasunaren eta gizonek emakumeen gainean dituzten botere-harremanen adierazpenik argienetako bat izan da eta izaten jarraitzen du. Emakumeen kontra "emakume izate soilagatik" ematen den indarkeria da, bai etxe barruan, bai kanpoan, bai bizitza publiko edo pribatuko edozein esparrutan.

— **INDARKERIA MATXISTA** terminoa zehatzagoa dela esan daiteke, emakumeengan emakume izate soilagatik gizonezkoek egiten duten indarkeriaren jatorri kulturala azaltzen duelako*.

— Beste termino batzuk: emakumeen aurkako indarkeria, feminizidioa. Besterik ezagutzen al duzue?

* Aurrerantzean, «genero-indarkeria» terminoa erabiliko dugu testuan, horixe erabiltzen baita dokumentalean. Zuk zein erabiliko zenuke?

10' dinamika aurkezteko.

5' pentsatu, idatzi eta post-itak kokatzeko.


15' partekatu eta eztabaidatzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Hiru koloretako post-it paketeak.
- Dinamika egunkarietako lerroburuekin hedatu nahi izanez gero, hau ere beharko dugu:
 - Egunkariak (analogikoa izatea erabakitzen badugu), artaziak eta paperezko zinta.
 - Wifi konexioa eta mugikorrak, digitalki egitea erabakitzekotan.
- Nola kokatu parte-hartzaileak: proposamenak eztabaida ekar baldin badezake, gomendatzen dizuegu taldea biribilean edo sakabanatuta jartzea, pertsonen artean mahairik edo aulkirik egon ez dadin.

IRUDIA
«Indarkeria matxistaren piramidea». Galtung.en indarkeriaren triangeluaren egokitzapena.



Profilak. Alde bakarra al dute?

BÍKTIMA / ERASOTZAILEA / SISTEMA

HELBURUA

Genero-indarkeriaren biktima edo erasotzaile izateko joera handiagoa duten zenbait profili buruzko estereotipoak zalantzan jartzea.

DINAMIKA

Izenburuan agertzen diren hiru ataletan banatuko dugu arbela, eta talde osoaren artean rol bakoitzerako profil bat definituko dugu. Taldeari galderak egin diezazkiokezue, iruditzen zaizue naren arabera orokorrak edo zehatzagoak, ateratzen dena osatzen joateko. Ateratzen diren ezaugarri guztiak apuntatuko ditugu. Amaitu dugula ematen duenean, **laugarren rola** jarriko dugu mahai gainean: Eta bizirik atera denaren profila? Biktimaren profilaren berdina al da?

**Ahal bada, begi-bistan utziko ditugu dokumentala ikusi arte, ikusi ondoren erabakitzeke zerbait aldatuko luketen ala ez.*

GAKOAK

Biktimaren profilik exisitzen al da? Eta erasotzailearen profilik? Gertatzen dena ahalbidetu eta legitimatzen duen sistemaren profilik al dago? Horrelako galdera orokorrak egin ditzakegu, parte-hartzaileek libreki hausnar dezaten.

Eta galdera zehatzagoak ere egin ditzakegu, ikusten dugunean taldeari kosta egiten zaiola rol bakoitzaren inguruan ekarpen gehiago egitea. Adibidez:

Nolakoa uste duzue izango dela fisikoki? Eta intelektualki? Zertan egiten du lan?

Zein klase sozialetakoa izango dela uste duzue? Nolakoa da bere familia? Ba al du buruko gaixotasunik? Eta abar.

Dinamika honetan funtsezkoa da, profilak definitu eta zalantzan jartzearekin batera, **mas-kulinitatearen** inguruan ere gogoeta egitea.

Era berean, funtsezkoa da profilen artean sistema ere kokatzea, arazo pertsonal edo diktomiko bezala azaldu beharrean, ikuspegia zabaltzeko. Indarkeria ahalbidetzen eta legitimatzen duen sistemaren inguruan ere hausnartzea da kontua. Sistema horretan osasuna eta hezkuntzaren arloak ere sartzen dira, eta horietakoren bat zuen taldearen esparrua baldin bada, bereziki interesgarria izan daiteke hain zuzen esparru hori nabarmentzea. Dena den, zuen esparrua edozein dela ere, eskatu gogoeta egiteko **pertsonalaren eta politikoaren arteko muga inguruan**.

Nolanahi ere, edozein emakumek jasan dezake indarkeria matxista. Ez dago indarkeria mota hori jasan dezakeen emakume-profil zehatzik, edonor izan baitaiteke biktima, edozein izanda ere haren klase soziala, prestakuntza, lanbidea, jarrera, marjinaltasun-egoera, migrazioa, pobrezia... Eta gauza bera gertatzen da erasotzaileekin ere.

5' dinamika aurkezteko.

20' profilak osatu eta sor daitekeen eztabaidari tartea emateko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Arbela eta klarionak (arbelik ez badago, paper-tira, paperezko zinta eta errotuladoreak).

Indarkeria eta osasuna. Ba al dute zerikusirik?

INDARKERIA MOTA OROK DU ERAGINA OSASUNEAN

HELBURUA

Genero-indarkeria eta osasuna erlazionatzea, bai eta gure testuinguruko osasun-zerbitzuen trataera ere.

DINAMIKA

Taldea bitan banatuko dugu eta egoera honetan jarriko ditugu: biak dira larrialdiak artatzen dituzten osasun lantaldeak. Gizon batek erasotutako emakume bat artatuko du talde batek eta, besteak, borroka batean gizon baten eraso jasan duen beste gizon bat.

Planteamendu labur hori egiteaz gain, denbora emango diegu talde bakoitzak egoera gehixeago zehaztu dezan, eta horren arabera beren jarduteko protokoloa definitzeko eskatuko diegu; horrelako kasuetan erantzuteko protokoloa, bai une horretarako bertarako, bai epe luzerako.

Baliabideak eta zerbitzuak bilatzeko aukera ere eman diezaiekegu, horrelakorik ezagutzen ez badute.

Adostutako denbora igaro eta gero, egindakoa partekatu eta komentatuko dugu. Desberdintasunei eta antzekotasunei buruz hitz egingo dugu, halakorik bada, baita protokoloa ezartzeko erabili dituzten irizpide edo planteamenduei buruz ere.

Gogoan izan atsegin handiz jasoko dugula partekatu nahi duzuen informazio guztia helbide elektroniko honetan: **documentales@medicushmani.es**.

GAKOAK

Lehen hurbilketa bat egitea nahi dugu, aurreko dinamikekin lotura argia eginez, egin baldin badituzue:

Nola lantzen da genero-indarkeria zure inguruan, osasun publikoan?

Nola lantzen da beste mota batzuetako indarkeria osasunaren esparrutik?

Ba al dago alderik? Zergatik uste duzue?

Jakingo al zenuke nora jo laguntza eske?

Badakizu zer protokolori jarraitu behar zaion kasu horietan?

Jarri arreta alde praktikoan.

Lehen kontaktu honetan, honako galdera hau ere egin dezakezue:

Zer harreman du osasunak genero-indarkeriarekin?

5' dinamika aurkezteko.

15' informazioa bilatzeko.

15' partekatu eta eztabaidatzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- «Indarkeriaren triangeluaren» eskema, paperean zein proiektatuta (bigarrena gomendatzen dugu).
- Papera eta boligrafoa, oharrak hartzeko.



Gutxienekoa lantzeko...

Edozein arrazoi dela eta, proposatutako dinamika bakar bat ere ezin izan baduzue egin, proposatzen dizugu **DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK**, gutxienez, gogoeta hau planteatzea taldeari:

Nola definituko zenuke genero-indarkeria?

Zure ustez, zer ondorio ditu pertsonen eta gizartearen osasunean?

Banatu post-it bana taldekide bakoitzari eta idatz dezatela papertxoak eskaintzen dien espazio txikian. Ondo gorde itzazu. Horiek izango dira aldamioak. ;)



DOKUMENTALA *ikusi eta gero*

?

ETA NIRI ZER?

Dokumentala ikusi eta berehala, barrura begiratu eta sentitutako emozioak identifikatzeko unea da. Ikusi eta entzundakoak nola eragiten gaituen argitzen saiatzeko unea da, dokumentaleko protagonistek erakutsitako egoerek gurekin zer lotura duten pentsatzeko unea.

Dinamikak

1)

Mozambikek... zein du hiriburua? Kokatzeko

HELBURUA

- Dokumentala ikusteak emozionalki eragin digunari arreta eskaintzea.
- Ikusi eta entzundakoak nola interpelatu gaituen ikustea.

DINAMIKA

Galderei banaka zein taldeka eman dakieke erantzuna; lantaldeka planteatu daitezke, edo talde osoari aldi berean. Guztiei erantzun dakieke, batzuei soilik, edo bakar bati. Baliteke galderak inspirazio-iturri izatea eta beste galdera batzuk sorraraztea... Dena dago irekita irakasle edo bitartekari gisa taldeari hobeto egokitzen zaiola iruditzen zaizuna egiteko, zure beharrak eta taldearenak kontuan hartuta.

- Uneren batean identifikatuta sentitu al zara?
- Ez zenekien zerbait ikasi al duzu?
- Zer iruditu zaizu bidegabeena? Zer itxaropentsuena?
- Dokumentalaren zein une nabarmenduko zenuke eta zergatik?
- Aipa ezazu dokumentalarekin ikasi duzun eta harritu zaituen zerbait.
- Uste duzue dokumentalean kontatzen diren istorioak bizi zareten herrialdean ere gerta daitezkeela? Nola?
- Dokumentala ikusi eta gero, genero-indarkeriaren auzitik hurbilago ala urrunago sentitzen zara?

Asko gustatuko litzazuke zuen erantzunak ezagutzea; gurekin partekatu nahi badituzue, helbide honetara bidali ditzakezue: **documentales@medicmundi.es**.

GAKOAK

Goiko galderak norberaren edo oso hurbilekoen esperientziekin lot daitezke, eta baliteke parte-hartzailearen batek horiek partekatze beharra sentitzea. Intentsitate emozional handiko uneetan laguntzeko, taldeak kontu handiz jokatu behar du: errespetuz entzun behar du, hitz egiteko denbora eskaini behar du, etenik egin gabe eta, batez ere, iritzirik eman gabe. Norbait deseroso sentitzen bada, kontatutakoagatik edo dokumentalak eragindakoagatik, komenigarria izan daiteke minutu batzuek ikasgelatik ateratzeko aukera eskaintzea, eta interesgarria da aukera hori saioa hasi aurretik eskaintzea. Era berean, oso garrantzitsua da zuk ere, irakasle, bideratzaile edo bitartekari, dinamika egitea eta galderei erantzutea, proposamenarekin benetan eroso bazaude eta nahi baduzu.



5' dinamika aurkezteko.

10' galdera bakoitzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Leku zabala, altzaririk gabea.

Dokumentalaren isla datuetan

Dirudienez, Aristotelesek esan zuen emakumeak behe-mailako izakiak zirela hagin bat gutxiago zutelako. Hiru aldiz ezkondu zen eta, guk dakigula, inoiz ez zitzaion bururatu emazte bati ere ahoa irekitzea eta hortzak zenbatzea. Eta geure buruari galdetzen diogu: zein aho ez dugu irekitzen? Zein hortz ez dugu zenbatzen?

Aurretik genituen ideiak kontuan hartuta, bai eta gaiak pertsona bakoitzari nola eragiten dion ere, beharrezkoa da ikertzea eta informazioa bilatzeko denbora-tarte bat hartzea, osasunaren eta indarkeriaren arteko harremanean sakontzeko, eta zehazki osasunak genero-indarkeriarekin duen harremanean; horrelaxe egingo ditugu balorazio eta diagnostiko egokiagoak. Diagnostikoari esker hobeto ekin ahal izango dugu, eta gure testuinguruan egoera eraldatzen lagunduko duten ekintzak proposatu. Edonolako Aristoteles bat ez izateko.

Hiru ikerketa txiki egitea proposatzen dizuegu. Bakarra egin dezakezue, gehien interesatzen zai-zuena edo gutxien ezagutzen duzuen gaiaren ingurukoa; edota hiru taldetan bana zaitezkeite gai guztiak lantzeko eta, ondoren, ikertutakoa partekatu. Erabakia hartu aurretik, betiere taldea bera kontuan hartu.

HELBURUAK

- Informazioa bilatu eta kontrastatzeak duen garrantzia aitortu eta sustatzea, ikasteko eta ezagutza eraikitzeke prozesuaren parte gisa.
- Informazio-iturrien objektibotasuna zalantzan jartzearen aldeko jarrera sustatzea.

Proposatutako hiru ildoetako edozeinetan, lor daitezkeen datuak edo informazioa bezain garrantzitsuak da bilaketaren prozesua bera.

Bestalde, honako hau ere galdetzen diogu gure buruari:

- Non eskuratu dugu informazio hori? Nork eman ditu datu horiek? Nork bildu eta argitaratu du informazioa?
- Zer adierazle eta aldagai erabili ditugu gaiari buruzko informazioa dugula pentsatzeko?
- Informazioa aurkitzeko zailtasunak izan dituzu? Zein motatakoak izan dira zailtasun horiek (hizkuntza, fidagarritasuna, informatzaileen joera, eskuragarritasuna, etab.)? Zer izan da errazena?



Emakumeak Afrikan eta Mozambiken

Mozambikeko emakumeen egoera pixka bat hobeto ezagutu nahi dugu alderdi batzuei dago-kienez, eta dokumentaleko informazioa beste iturri batzuetako informazioarekin kontrastatu nahi dugu, ikusteko nolakoa den genero-indarkeriaren eta osasunaren arteko harremana lurralde horretan eta gurean.

Bete taula hau, ahal baduzue:

	MOZAMBIKE	AFRIKA
Emakume kopurua		
Bizi-itxaropena		
Ezkontzeko batez besteko adina		
Ama izateko batez besteko adina		
Batez besteko eskolatze-maila		
Sari nazionalak		
Indarkeriaren biktimak		

* Espainian: <https://www.inmujeres.gob.es/MujerCifras/Home.htm>.

Aurkitutakoa, zailtasunak eta erraztasunak talde handian partekatu eta gero, galdera hauek egingo ditugu:

- Datu horiekin, **ba al dugu emakumeek Afrikan eta Mozambiken bizi duten egoera-ren «argazkirik»?** Are gehiago, «**emakumeak Afrikan**» moduko adierazpen orokorrik egin al daiteke?
- **Zer esaten digute adierazle horiek guri buruz?**
- **Zer beste datu edo aldagai bila genitzake edo uste duzue bilatu behar ditugula balorazio egokia egin ahal izateko?**



5' dinamika aurkezteko.

15' informazioa bilatzeko.

15' partekatu eta eztabaidatzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.



Datuen ordeaz, pertsonak

Ikerketa kualitatiboa egingo dugu, antzeko helburuekin. Dokumentalaren amaieran beste emakume afrikar batzuk aurkezten dizkigute.

Leyman Gbowee
Ellen Johnson-Sirleaf
Hadijatou Mani
Nkosazana Diamini-Zuma
Amina Mohamed

Ezagutzen al dituzue? Bilatu haiei, haien bizitzei, testuinguruei, borrokei eta lorpenei buruzko informazioa. Partekatu zuen ustez garrantzitsuena dena.

Erreferentziazko emakumeak dira. Halaber, zuen buruari zera galdetzea nahiko genuke: Zeren erreferentzia? Norentzat?

Beste zer erreferentzia ezagutzen duzu edo bilatuko zenuke?

Luzatu zerrenda **TIRAKA JARRAITZEKO HARI BATZUK** atalean.

Nahi baduzue, bidali **documentales@medicushmani.es** helbidera aurkitzen dituzuen erreferentziazko pertsona guztiak eta, modu horretara, zerrenda luzeagoa osatuko dugu denon artean.



5' dinamika aurkezteko.

15' informazioa bilatzeko.

15' partekatu eta eztabaidatzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiago izan daitezke.
 Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da.
 Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.



Baliabideak: ekonomikoak, sozialak eta sanitarioak

Genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak eta genero-berdintasunaren aldeko ekintzaileak agertzen dira dokumentalean. Batzuek harrera-etxeei buruz hitz egiten dute; beste batzuek, epaitegiei eta legeei buruz, ospitaleez, eta musikaz ere asko hitz egiten da. Era askotako baliabideak behar dira era askotako genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko. Ba al dakizu zure lurraldean genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeek zer baliabide dituzten?

Ikerketa txikia egitea proposatzen dizuegu, zuen testuinguruan (udalean, erkidegoan edo estatuan) dituzuen baliabideen mapa orokorra ezagutu dezazuen.

EKONOMIKOAK (zuzeneko laguntzak, dirulaguntzak, etab.)	SANITARIOAK	SOZIALAK	BESTELAKOAK (juridikoak, formakuntzakoak, etab.)

Ariketa taldeka egitea proposatzen badiezu, besteekin partekatzean mapa hedatu ahal izango dute.

Internet bidez baliabide batzuetara iristea zailagoa suertatu zaizue? Bururatzen al zaizue non dauden sare komunalak edo elkarri laguntzeko sareak?

Mozambiken, adibidez, **Tufo da Mafalala** (Lucía Mbomío-k Pikara Magazine-rentzat egindako dokumentala).

Hari horiek zuen lurraldean heda ditzakezue?

Jarrai ezazue partekatzen eta sareak ehuntzen.



5' dinamika aurkezteko.

15' informazioa bilatzeko.

15' partekatu eta eztabaidatzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.



Genero-indarkeria eta osasuna

Guk argi daukagu genero-indarkeriak guztion osasunari eragiten diola; are modu nabarmenagoan, zuzenean pairatzen duten emakumeei. Alderantzizko zentzuan ere daukagu argi: genero-indarkeriak osasun kolektibo edota sozialarekin du zerikusia. Hala ere, askotan harreman hori zalantzan jartzen da edo ikusezin bihurtzen da.

Zergatik uste duzue dela hain zaila kuantifikatzea eta ikusaraztea genero-indarkeriak emakumeen osasunean dituen ondorioak?

Osasunaren eta genero-indarkeriaren arteko harremana ikusarazteko ikerketa txiki bat egitea proposatzen dizuegu, osasuna zentzu zabalean hartuta.

GENERO-INDARKERIAREN ONDORIOAK HONAKO HAUTETAN:

BURU-OSASUNA	OSASUN FISIKOA	SEXU- ETA UGALKETA- OSASUNA	SEME-ALABEN OSASUNA
--------------	----------------	-----------------------------------	------------------------

Bateratu denon artean emaitzak, iturriak eta informazioa aurkitzeko erraztasunak edota zailtasunak. Zuen ustez, ikusezinaoak diren indarkeriek (sinbolikoa, psikologikoa eta kontrola) ere eraginik al dute?

Hemen aurkituko dituzu beste datu batzuk:

<http://estadisticasviolenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/>



5' dinamika aurkezteko.

20' informazioa bilatzeko.

15' partekatu eta eztabaidatzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.



Bazen behin...

Bazen behin... Horrela hasten da ipuin asko, ezta? Gure asmoa da istorio hau, dokumental hau, nola kontatu diguten aztertzea: gidoia, musika, protagonistak, eszenak, lekuak... Zergatik protagonista horiek eta ez beste batzuk? Zergatik musika hori? Zergatik eszena horiek eta ez beste batzuk?

HELBURUAK

- Dokumentalaren ikus-entzunezko hizkuntza identifikatzea.
- Dokumentalaren atalak esplizitu egitea.

Dinamikak

1) Kantuz kontatuko dizut

Musika gidoiaren funtsezko atala da, bai soinu-banda gisa erabiltzen denean, bai Womanen kasuan bezala, protagonistetako batzuk interpreteak eta musikagileak direnean.

Urteak dira bideoklipak oso garrantzitsuak direla musikaren industrian. Zer kontatzen du artista batek abesti bat interpretatzen duenean? Erabiltzen duen arropa, grabatzeko lekua, bideoan nor agertzen den... hori guztia musika eta letra bezain garrantzitsua da.

1. bideoa) **Beyoncé / Partition** (Explicit Video) | 2. bideoa) **M.I.A. / Borders**

Bideo horiek aztertu eta horien inguruan eztabaidatzea ez dadila ohar sinpleetan gelditu. Interseksionalitatearen konplexutasunetik eztabaidatzea da kontua, eta normalean eskaintzen ez dugun denbora eskaintzea aztertze "kontsumi" edo goza ditzakegun musikaren eta bideoen geruza guztiak.

Bi bideo ikustea da proposamena, bi emakume artistarenak.

- Zer ikusle motari zuzenduta daude?
- Emakumeari buruzko zer irudi erakusten dute?
- Eman bideoetan proposatzen denaren aldeko eta kontrako bina argudio

GAKOAK

Bideoak ikusi eta gero, banatu taldea hiruzpalau lantaldetan eta erantzun diezaietela planteatutako galderei, edo gaiaren inguruan bururatzen zaizun beste edozein galderari. Horren harira, bila ditzatela bi bideoen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak ere. Amaitutakoan, bateratze-lana egin eta erantzun diezaietela galdera berberei, baina **WOMAN** dokumentalari dagokionez.



5' dinamika aurkezteko.

20' profilak osatzeko eta sor daitekeen eztabaidari tartea emateko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Wifia, pantaila eta bozgorailuak.
- Leku zabala, altzaririk gabea.

Musika-zerrenda sortuko dugu

CLAVES

Musika jotzen eta sortzen duten emakume batzuk erakusten ditu **WOMAN** dokumentalak. Emakume ahaldunduak dira eta beren protagonismoa erabiltzen dute emakumeengan eragina duten botere-egoerak salatzeke.

Musika-zerrenda sortzea proposatzen dizuegu, baina ez edonolakoa: musikari emakumeak soilik agertuko dira, eta gutxienez laurdena afrikarrak izango dira. Zalantzarik gabe, jarduera zaila izan daiteke, baina hain zuzen ere horretan datza proposamena.

- Maiz entzuten dituzuen zerrenden edo gehien gustatzen zaizuen musikaren errepa-soa egingo dugu.

Gogoan izan zuen zerrendak edo gidarekin lotutako beste edozein material bidal diezagukezuela helbide honetara: **documentales@medicushmani.es**

Ariketa banaka zein taldeka egin daiteke. Dauden gailu mugikorrek erabiliz, dinamikak proposatzen dituen musika-erreferentziak bilatuko ditugu.

Bestalde, dinamika etxean egiteko ere proposa dezakegu, eta musika-zerrenda eginda ekartzeko. Hala egiten baduzue, sortutako zerrenda guztiak erreparasatu daitezke saio bate-ratuan, eta denen artean bat-etortzeak eta aurkikuntzak ikusi.

TIRAKA JARRAITZEKO HARI BATZUK atalean «playlist» pare bat aurkituko duzu ildo horretan.



- 5'** dinamika aurkezteko.
- 20'** abestiak entzuteko eta zerrenda berria egiteko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxi-egi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalku-latu dugu dinamika guztietan.

MATERIALES

- Wifia, ordenagailua eta bozgorailuak.



Haien hitzetatik...

Dokumentaletik aukeratutako esaldi batzuetatik abiatuta, taldeak osatzea proposatzen dizuegu; parte-hartzaileen kopuru osoaren arabera, hiruzpalau talde.

Talde bakoitzari esaldi pare bat emango zaio eta egokitu zaien esaldi bakoitzaren alde eta kontra bina argudio emateko eskatuko zaie. Amaitutakoan, talde bakoitzak esaldi bakoitzaren inguruan aurkitutako argudioak partekatuko ditu besteekin.

- **A aukera:** talde bakoitzari ematen zaizkion 2 esaldiak berdinak izatea. Argudioak besteekin partekatzean, antzekotasunak edo desberdintasunak bilatu ahal izango dituzte, talde osoak gai berberen inguruan gogoeta egingo baitu. Proposamen horrek taldearen kohesioa areagotzen du.
- **B aukera:** talde bakoitzari 2 esaldi desberdin ematea. Argudioak besteekin partekatzean, aldeko eta kontrako jarreraren artean eztabaida daiteke, edo esaldi bakoitzarentzako argudio desberdinak eman. Proposamen horrek taldearen aniztasunari arreta handiagoa ematea errazten du.

«**Neskak ez dira hezten jakiteko haiek zuzenbide-subjektu direla**»

(Graça Julio_Forum Mulher).

«**Kartzelan sartuko balute, senideek esango lukete neuk sartu nuela kartzelan**»

(Natalia Malembe).

«**Preso sar dezaketen pertsona familiaren hornitzailea da**»

(Enia Lipenga).

«**Beharrezkoa zen mugimendu kulturala, musikala sortzea, legezko prozesua babesteko eta Legebiltzarrak Etxeko Indarkeriaren Legea onar zezan**»

(Iveth Mafundza).

«**Josina berriro biktimizatu zuten, hitz egin zuen emakumea zelako**»

(Iveth Mafundza).

«**Indarkeriak ez du ez mugarik, ez kolorerik, ez maila sozialik**»

(Graça Julio).

«**Pertsona guztiek jasan dezakete indarkeria. Emakume guztiek**»

(Graça Julio).

«**Dagoeneko aurreiritzi batzuk dituen pertsona bat konbentzitu beharra daukazu**»

(Dama do Bling).

«**Indarkeria guztion arazoa da, modu orokorrean**».

(Iveth Mafundza).

«**Indarkeriatik bizirik ateratzeko bidaia bizitza osorako da**»

(Josina Machel).



5' dinamika aurkezteko.

15' taldeka gogoeta egiteko.

15' partekatu eta eztabaidatzeko

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Esaldiak erakusten dituen zerrenda paperean edo pantailan.

Eta orain zer?

WOMAN dokumentalaren lanketa egitean genero-indarkeriaren eta osasunaren arteko erlazioan sakontzeko, hausnartzea, eztabaidatzea, partekatzea, ikertzea eta gidoi bat sortzea ere proposatu dizuegu. Dena den, edozein gairen inguruan sakontzeko, gorputzarekin ere sartu behar da: ekin egin behar da.

Gure buruari «Eta orain zer?» galdetzean, gure helburua da behatu eta hausnartu dugun guztia gure jarduera eta aukerekin lotu eta osatzea.

HELBURUAK

- **WOMAN**en ikusitako egoeren aurrean, baina arriskurik gabeko giro batean, izango genituzkeen jarrerak eta erreakzioak ezagutu eta esperimentatzea.
- Erreakzionatzeko moduak eta horien ondorioak identifikatzea.



Zer egingo zenuke zuk egoera horretan?

PROTAGONISTAK

Taldeari eszena bat, bi edo hiru proposatuko dizkiogu hainbat egoera antzez ditzaten. “Rol playing” egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, boluntarioak beharko ditugu protagonista izateko, eta ikusle aktiboak ere beharko ditugu. Eszena bakoitza azaldu eta gero, protagonistei eta ikusleei minutu batzuk eman-goz dizkiegu eszenan sar daitezen eta, ondoren, EKIN!

IKUSLE AKTIBOAK

Beren burua horretarako eskaintzen duten pertsonak pertsonaia bana hartuko dute eta, landutako guztia praktikan jartzeko, inprobisaziora joko dute planteatutako egoera konpontzeko, edo ez.

Ikusleek ere adi eta aktibo ibili beharko dute, antzeztan ari diren lagunek ikusleek laguntza eskatzeko aukera izango baitute, adibidez egoerarekin tratatuta gelditzen direnean beste argudio, ikuspegi eta proposamen batzuk entzuteko. Laguntza eskatzen ez bada ere, ikusleek parte hartzeko aukera izango dute: antzezpena hasi eta 5 minutura laguntzarik eskatu ez bada, bideratzaile gisa eszena geldiaraz dezakezu eta ikusleei eskatu parte hartzeko, iradokitzeko eta argudiatzeko.

LAGUNTZA

Hemen behean ikusiko dituzun taulak lagungarri izango zaizkizu pertsonen rolak eta eszenak hautatzeko, parte-hartzaileek gehiago sakondu edo zailentzen jartzeko nahiago dituzun alderdien arabera, edo une horretan taldeaz duzun pertzepzioaren arabera. Nahiko planteamendu irekia egin dugu zuk nahi bezala zehatz dezazun. Hobe da pertsonaia bakoitzaren ezaugarri bereziak besteei ez jakinaraztea, baizik eta horiek ekintzen bidez ikusaraztea.

ZENBAIT IRADOKIZUN

Oso aberasgarria izan daiteke eszenaren erdian, une jakin batean rol-aldaketa proposatzea, eta medikuarena egiten ari zena emakume erasotua izatera pasatzea, edo biktima erasotzaile bihurtzea eta kritika egiten zutenak aldarrikapena egitera pasatzea, eta alderantziz. Horrela, taldearen argudioak ez ditugu polarizatuko, egoeren konplexutasunari eutsiko diogu eta ondorengo hausnarketa sakonagoa izango da.

IDEIAK JASO ETA ESKERRAK EMAN

Eszena bakoitza bukatzean, garrantzitsua da denbora-tarte bat uztea ideiak jasotzeko, eta entzuteko, batez ere pertsonaiak antzezteko beren burua aurkeztu dutenekin, eta egindakoagatik eskerrak emateko. Eszenatik kanpo gelditzen den denbora horretan azaldu ahalko dute zergatik jokatu duten modu batera edo bestera, eta **WOMAN**en ikusitakoarekin lotu ahalko dute, baita aurretik eztabaidatu eta aipatu denarekin ere. Beharrezkoa izango da distantzia apur bat hartzea eta ez besteak, ez gure burua epaitzea, kontuan hartuz nor den behatzen duena eta nor jarduten ari dena. Halaber, une aproposa izango da talde osoak hitz egiteko gizarie bezala eman behar diren aldaketek genero-indarkeriari erantzun egokiagoa emateko, problematika sinplifikatu gabe.

Esparru horietako arazoak ikusaraztea eta hitz egindakoa ekintzarekin lotzea da helburua. Interesgarria iruditzen bazaizu beste eszena edo gai bat lantzea, dinamika hau zure esperientzia eta ezagutza arabera egokitu dezakezu. Aurrera!

Garrantzitsua da kontuan hartzea helburua ez dela beti arazoa konpontzea, askotan ez baita konponbiderik egoten, baizik eta gogoeta ekintzarekin nola lotzen den bizitzea eta kontzientzia kritikoa sustatzea.

1. ESZENA: «Medikuarenean»* **PERTSONAIAK Medikua + Emakume erasotua**

Emakume bat medikuarengana joan da erasotua izan delako.

LEKUA	MEDIKUA	EMAKUME ERASOTUA	BESTELAKOAK
Lehen Mailako Osasun Arreta Zentroa landa-eremuan	Ez du pazientearen hizkuntza ulertzen.	Baliabide ekonomiko gutxi ditu.	Norbaitekin dator
Lehen Mailako Osasun Arreta Zentroa hiri-eremuan	Aurreiritziak ditu indarkeria jasan duen pertsonaren kulturarekin.	Baliabide ekonomiko asko ditu.	Harekin datorrena erasotzailea da eta ez du onartzen.
Larrialdiak	Balio moral tradizionaletan sinesten du eta defendatu egiten ditu.	Arrazoi horrengatik zerbitzu medikoetara jotzen duen lehen aldia da.	Harekin datorrena erasotzailea da eta onartu egiten du.
	Generoaren inguruko aurreiritziak ditu.	Arrazoi horrengatik zerbitzu medikoetara jotzen duen hirugarren aldia da.	Emakumezko lagun batekin etorri da.
	Lekukotza zalantzan jartzen du.	Egun horretan bertan beste profesional bati ere kontatu dio gertatutakoa.	Senide batekin etorri da.
	Bera ere izan da indarkeriaren biktima	Ama da.	
		Prostituta da.	
		Bere erasotzailea pertsonaia publikoa da	
		Kostatu egiten zaio gorputza gizon bati erakustea.	

*Aukeratu zutabe bakoitzean gehien interesatzen zaizkizun aukerak.
Hainbat aukeratu daitezke aldi berean*

2. ESZENA: «Eztei-bidaia»*** PERTSONAIAK Emakumea + erasotzaile eta bikotekidea**

Eztabaida eta eraso fisiko baten ondoren, bikote bat berriro elkartu da eta gizona lore-sorta batekin eta barkamen eske etorri da.

ERASOTZAILEA	ERASOA JASAN DUEN EMAKUMEA
Hitzezko indarkeriarekin zuzenean eraso egin zion.	Ez du seniderik ez lagunik gertu.
Indarkeria kulturalarekin eraso egin zion.	Senideak eta lagunak gertu ditu.
Indarkeria fisikoarekin zuzenean eraso egin zion.	Ez ditu ezagutzen eskura dituen laguntza-baliabideak / Bai ezagutzen ditu.
Erasoa egin izana onartzen du.	Independentzia ekonomikoa du / Ez du independentzia ekonomikorik.
Ez du onartzen erasoa egin izana.	Uste du bikote-harremana dela garrantzitsuena eta dibortzioa porrota dela.
	Uste du maitasuna dela garrantzitsuena.
	Bere emakumezko lagunek egiturazko indarkeria egiten diote.
	Seme-alabak ditu / Ez du seme-alabarik.

3. ESZENA: «Grupak»*** PERTSONAIAK Hainbat emakume eskubideak aldarrikatzen + ikusleek babesa ematen diete / kritikatu egiten dituzte**

Manifestazioa, topaketa bat. Emakumeek aldarrikapenak eta kantuak egiten dituzte dokumentalean agertzen diren gaitako baten inguruan (independentzia ekonomikoa, baliabide falta, errespetua, babesa emateko eta aldaketak egiteko legeak, etab.).

EMAKUMEA	IKUSLEAK
Lege berriak aldarrikatzen dituzte	KRITIKATU EGITEN DITUZTE: - Arreta erakarri nahi omen dutelako. - Ez daudelako moralki ados haiekin. - Kritikatzegatik, iraintzeagatik. - Esajeratzen ari omen direlako. - Bestelakoak.
Errespetua eta aintzatespena aldarrikatzen dituzte.	BABESTU EGITEN DITUZTE baina ez dira ausartzen esaten.
Aldaketa kulturalak eta egiturazkoak eskatzen dituzte.	BABESTU EGITEN DITUZTE eta haiekin bat egiten dute.
BESTELAKOAK	Generoarekin aurreiritziak dituzte.

Eszena horren bidez aktibisten aurrean egoten diren askotariko erreakzioak nabarmendu nahi ditugu, eta emakume horiek nolako indarkeria jasan behar izaten duten arazoa agerian jartze hutsagatik, nahiz eta indarkeria hori ez den genero-indarkeriatzat hartzen

Gelditu egiten gara, aurrera jarraitzeko

Indarkerien inguruan aurretik genituen ideietatik hasita, eta ondoren guk geuk izan ditugun erreakzio eta jarrerak kontuan hartuta, zerbait aldatu al da?

Hausnartzeko ariketa bikoitza proposatzen dizuegu taldera eramateko eta nahi.

HELBURUAK

- Saioan landutakoaren inguruan kontzientzia hartzea, bai norbanako gisa, bai talde gisa.
- Lotura egitea, alde batetik, genero-indarkeriari eta osasunari buruzko ideia eta gogoeten eta, bestetik, egin daitezkeen ekintzen artean.
- WOMANen saioa elkarrekin ixtea.

Dinamikak

1)

Hausnarketa banaka egitetik taldeka egitera

Dokumentala ikusi aurretik, hasieran idatzi genituen post-itak edo egin genituen ariketak hartu, irakurri eta gogoraziko ditugu. Ondoren, galdera hauei erantzutea proposatzen dizuegu:

- Zer gehitu edo kenduko zenuke orain «genero-indarkeriaren» definizioan eta horrek osasunean dituen eraginen azalpenean?
- Zer uste duzu egin dezakezula zuk zehazki aldaketak eragiteko?
- Aipatu gutxienez 4 ekintza, 2 norbanakoek egin ditzaketenak eta 2 jende gehiago beharko luketenak.

EKINTZA KOLEKTIBOA_TALDE TXIKIA

Bakarkako hausnarketa idatzi eta gero, zera proposatuko diegu, jaikitze, espazioan zehar mugitzeko eta taldean beste pertsona batzuk bilatzeko, beren ekintza berberak edo antzekoak pentsatu dituztenak eta jende gehiago behar dutenak. Binaka, hirunaka edo, agian, baita launaka ere elkartu daitezke.

Elkarrekin saioaren sintesia egingo dute, ikusi, eztabaidatu eta hausnartutako guztian funtsezkoa deritzotena azpimarratzeko, eta ekintza antolatu bat proposatuko dute, partekatu dutenaren arabera.

KANPAINA_TALDE HANDIA

Aurkeztu kanpaina edo proposamenak talde osoari.

- 5' dinamika aurkezteko.
- 5' erantzunak banaka emateko.
- 5' norik bere taldea aurkitzeko.
- 10' sintesia egin eta kanpaina antolatzeko.
- 10' besteekin partekatzeko

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

Tiraka jarraitzeko hari batzuk

Espero dugu ikusi, partekatu, ikertu eta proposatu duzuen guztia bere horretan ez gelditzea.

Hari asko daude tiraka jarraitzeko, pentsamendu- eta ekintza-sareak ehuntzeko, osasunaren inguruan ditugun ikuspegiak zabaltzeko.

Gidan zehar hainbat agertu dira, eta hemen proposamena zabalik duzue musika, testu, liburu eta bideoen zerrenda luzatzen jarrai dezazuen.

Badakizue nora bidali **documentales@medicmundi.es**.

MUSIKA

- **BUSISWA (Hegoafrika)**. Abeslaria eta olerkaria. Generoak: Hip Hop, Amapiano, House eta Gqom.
Makazi <https://www.youtube.com/watch?v=adantgdC19M>
<https://www.bbc.com/news/av/world-africa-56725125>
 - **MOONCHILD SANELLY (Hegoafrika)**. Abeslaria eta dantzaria. Generoak: Rap, Future Ghetto Punk.
Dance like a girl <https://www.youtube.com/watch?v=g89BSSpatWY>
 - **SHO MADJOZI (Hegoafrika)**. Abeslaria, raperoa eta aktorea. Generoak: Hip Hop eta Gqom.
John Cena <https://www.youtube.com/watch?v=H9bGITkIHmM>
 - **YEMI ALADE (Nigeria)**. Abeslaria. Generoa: Afropop.
Dancina <https://www.youtube.com/watch?v=5P7JoQxEmE4>
https://www1.undp.org/content/undp/es/home/news-centre/news/2020/Yemi_Alade_new_Goodwill_Ambassador_for_UNDP.html
 - **TIWA SAVAGE (Nigeria)**. Abeslaria. Generoa: Afropop.
Koroba <https://www.youtube.com/watch?v=5goMslKxEWs>
<https://www.ctpublic.org/2020-10-10/on-celia-tiwa-savage-celebrates-powerful-women>
 - **TEMS (Nigeria)**. Abeslaria. Generoa: R&B, Afropop.
Damages <https://www.youtube.com/watch?v=EOrFWBjiRik>
 - **SAMPA THE GREAT (Zambian jaioa eta Botswanan hazia)**.
Abeslaria eta olerkaria. Generoa: Hip Hop.
Energy <https://www.youtube.com/watch?v=dDubhAKSeBO>
 - **PONGO (Angola)**. Abeslaria. Generoa: Hip Hop, Kuduro.
Bruxos <https://www.youtube.com/watch?v=5duWNtire2o>
- [Mila esker **@dizyclare** musika-zerrendagatik].

BIDEOAK

- **TUFO DA MAFALALA**: Maputoko dantza. Maputoko emakumeen elkarte batek Nampula (Mozambikeko iparraldean) inguruko dantzak aitzakia gisa erabiltzen ditu memoria landu eta emakumeen arteko laguntza-komunitatea eraikitzeko.
<https://www.pikaramagazine.com/2018/06/tufo-da-mafalala-la-danza-de-la-capital-de-maputo/>
Lucía Mbomíok Pikara Magazinerentzat egindako dokumentala.



- «**KARINGANA WA KARINGANA**» esamoldeak «**Bazen behin**» esan nahi du ronga hizkuntzan, Maputoren probintzian egiten den bantu taldeko hizkuntzan. Wacy Zacariasek eta Djamila De Sousak edozein narrazio hasteko ohiko formula hori aukeratu zuten oihaletan estanpak egiteko markari izena emateko. Eta, hain zuzen ere, izen hori aukeratu zuten oihaletan, capulana izenez ezagunak direnak, ohiko euskarria izan direlako ahozko kultura garrantzitsua duten Afrikako hainbat herritan jakintzak transmititzeko. Duela bost urte, Maputon bizi diren emakume gazte horiek lehengo istorioak kontatzeko modu hori berreskuratu nahi izan zuten, orainaldira ekarri eta oihaletan estanpatu, beti egin izan den moduan.
<https://www.youtube.com/watch?v=qYCaDhuGixw>
Lucía Mbomíok egindako dokumentala.
- **DAMA DO BLING - TXALALA FEAT SAVAGE** (Official Video). «Emakumeek abestu behar dute, hitz egin, eta sentitu behar dute beren garrasia ez dela soilik berea, guk ere haien mezua eraman dezakegula. Uste dut gure seme-alaben belaunaldia gurea baino hobea izango dela genero-kontuetan», dio itxaropenez rap abeslariak.
<https://www.youtube.com/watch?v=xaeB9KBf9JY&t=42s>
- **IVETH KARINGANAS DO RAP MOZ (MC MOÇAMBIQUE) FT HAWAIO, RAGE & SGEE**
<https://www.youtube.com/watch?v=12HmJEwHMGU&t=3s>


ARTIKULUAK ETA TESTUAK

- «**Las raperas de Mozambique se levantan contra el machismo**».
https://elpais.com/elpais/2020/06/25/planeta_futuro/1593073040_988477.html
- «**¿Conoces al Colectivo Ayllu?**» Julia Cabrerak **Afrofeminas-entzat idatzitako artikulua**.
<https://afrofeminas.com/2020/08/11/conoces-al-colectivo-ayllu/>
- **LUGONES, M.** «**Hacia un feminismo descolonial**» en *La manzana de la discordia-n, 6. zk., 2. bol., uztaila-abendua, 2011 (105-119, or.)*.
https://hum.unne.edu.ar/generoysex/seminario1/s1_18.pdf
- «**Manual de estilo para el tratamiento de la violencia machista y el lenguaje inclusivo en los medios de comunicación**».
<https://www.mujeresenred.net/IMG/pdf/manualupv-digital-cast-pag.pdf>
- «**Mozambique: cinco años después, Josina Machel sigue esperando justicia por violencia de género**». <https://www.amnesty.org/es/latest/press-release/2020/10/mozambique-five-years-on-josina-machel-still-waiting-for-justice-for-gender-based-violence/>

Agurra eta itxiera

medicushmani

Berdintasuna lortzen badugu, genero-indarkeriaren gaitzarekin guztiz amaitzea lortzen badugu, gizateria osoak irabaziko du.



TALDEA

NORAY KOLEKTIBOA

Gida hau sortzeko prozesuan, indarkeria matxistaren gaia jorratzean zeharkatzen gaituzten emozioei erantzunez, ezagutu ahal izan dugu zer den talde handi batean bidea egitea, jakintzak batzea, sareak ehuntzea, prozesua errespetatu eta zaintzea; azken batean, guztion artean elkar zaintzea. Uste dugu horiek direla, hain zuzen ere, indarkeria matxistekin amaitzeko moduak.



medicusmundi
Elkarteen Federazioa Espainian
Lanuza, 9, local
28028 Madrid
Tel. 91 319 58 49 / 902 101 065
Fax 91 319 57 38
federacion@medicusmundi.es
www.medicusmundi.es

medicusmundi
Mediterrània
mediterrania@medicusmundi.es
934 184 762

medicusmundi
Sur
sur@medicusmundi.es
958 135 070

medicusmundi
Norte
norte@medicusmundi.es
985 23 22 27

medicusmundi
Araba
alava@medicusmundi.es
945 28 80 31

medicusmundi
Navarra-Aragón-Madrid
nam@medicusmundi.es
948 131 510

Laguntzaileak



**Generalitat
de Catalunya**



**Agència Catalana
de Cooperació
al Desenvolupament**